

---

**Bilera mota:** Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

**Data:** 2014-2-17 (astelehena)

**Ordua:** arratsaldeko 19:00etan.

**Lekua:** Udaletxeko Areto Nagusia

**Erreferentzia:** E -14-01

---

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko otsailaren 12a

Idazkari-kontuhartzailea

---

**AZTERGAI**

**ZERRENDA**

- 1.- Azken sesioko akta onartzea.
- 2.- Alkatearen ebazpenen berri ematea.
- 3.- Arriskutsuak izan daitezken zakurren udal erregistroa eratzeko proposamena.
- 4.- Bidegi, S.A., foru enpresarekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea.
- 5.- Iñaki Narrasperen gune zoologikoari erabilera publikoa eta gizarte interesa onartzeko proposamena.
- 6.- Galdera erreguak.

---

## **2014KO OTSAILAREN 17KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

Ezkio-Itsason, bi mila hamalauko otsailaren hemezazpian.

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta aldez aurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira honako Udalkide hauek:

- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Joseba Etxezarreta Estala (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).
- Ruth Idiakez Alberi (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz: inor ez.

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Gotzon Goikoetxea Cestona.

---

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalarri dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.

---

**LEHEN PUNTUA:  
AZKEN SESIOKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak aditzera ematen du 2013-11-18ko Ez-Ohiko Saioko akta onartu behar dela.

Aho batez onartzen da.

**BIGARREN PUNTUA:  
ALKATEAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Udal Entitateen funtzionamendu eta antolaketa arautzen duen 2568/1986 Erregalamentuko 42. artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak azken Udal Osoko Bilkuratik aurrera eman dituen ebazpenen berri ematen dio Udal Osoko Bilkurari.

Ebazpenak: R-13-215/R-14-025 (zerrenda osoa aurkezten da).

**HIRUGARREN PUNTUA:  
ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ZAKURREN UDAL ERREGISTROA  
ERATZEKO PROPOSAMENA.**

101/2004 Dekretuak, ekainaren 1ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoak, bere 20. artikuluan xedatzen du arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal-erregistroan erregistratu behar dituztela.

Erregistro honek, besteak beste, datu hauek izango ditu: identifikazio kodea; edukitzaiaren datuak; animaliaaren ezaugarriak; animaliaaren ohiko helbidea; animaliaaren funtzio edo trebetasuna; lizentzia zenbakia, eta abar. Ikusirik Ezkio-Itsason ez dagoela eraturik honelako erregistrorik, eta badela herrian arriskutusak izan daitezkeen txakurren jaberik, eta hauek bertan inskribatzeko eskaera egin dutela.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutakoan aho batez,

**ERABAKI DU**

**LEHENA:** Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal-erregistroa eratzea.

**BIGARRENA:** Erregistro horren antolakuntza eredua onartzea:

Identifikazio kodea /	Edukiztailearen datuak: izena, ohiko helbidea, NANA, harremanetarako telefonoa.	Animaliaren ezaugarriak. Adina, arraza, sexua, jaiotze-data. Txip zenbakia	Animaliaren ohiko helbidea	Animaliaren funtzioa edo trebetasuna	Lizentzia zk., noiz eman zen, noiz arte balio duen, zein organok eman zuen

**LAUGARREN PUNTUA:**

**BIDEGI, S.A., FORU ENPRESAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONARTZEA.**

Bidegi, S.A. foru sozietatea, AP8 eta AP1 autobideetako Gipuzkoako zatia kudeatu eta ustiatzen dituen da. Era berean, autobide horietan ezartzen den kanonen gainean deskontuak egiteko ahalmendua dago. Agindutako funtzio horiek garatzeko Bidegi behartua dago deskontuaren eskatzailea Gipuzkoako udalerrri batean erroldatuta dagoela egiaztatzen.

Hitzarmenaren bidez, Bidegik deskontudun eskatzaileen bizilekuari dagokion informaziora, modu telematikoan, sarrera izatea dakar, pertsona fisikoak bere errolda agiria aurkeztu beharrean. Ondorioa izango da, Bidegik interesdunari errolda agiria zuzenean eskatu beharrean, bere oneritziarekin, zuzenean Udalari eskatzea izango duela. Hori dena arautzeko eta Datu Babeserako Legea betetzeko helburuarekin, hitzarmen hau proposatzen da:

**EZKIO-ITSASOKO UDAL TXIT GORENA  
ETA BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN  
AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE  
INFRAESTRUTURAS SAREN ARTEAN  
UDAL ERROLDAREN DATUAK  
EGIAZTATZEKO LANKIDETZA  
HITZARMENA**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN EN  
MATERIA DE COMPROBACIÓN DE DATOS  
DEL PADRON MUNICIPAL ENTRE BIDEGI  
GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-  
AGENCIA GUPUZCOANA DE  
INFRAESTRUTURAS S.A Y EL EXCMO.  
AYUNTAMIENTO DE EZKIO-ITSASO**

---

Zarautz, 2014ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_ (e)an.

Zarautz, a \_\_ de \_\_\_\_\_ de 2014.

## BILDUTA

Alde batetik, Maria Catalina Nevado Larrañaga andrea, BIDEGI GIPIZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS SA (aurrerantzean, BIDEGI), Zarautzko, Asti auzoa, 631 A, helbidea duen enpresaren izenean, egintza honetarako berariaz Administrazio Kontseiluak azaroaren 9an egindako bileran hartutako erabakiaz ahaldundua. Administrazio Kontseiluko Idazkariak 2012ko azaroaren 9an luzatutako ziurtagiri bidez ziurtatzen dena.

Bestetik Garikoitz Aiesta Etxaniz Jn., Ezkio-Itsasoko Udalaren izenean eta 2014ko otsailaren 12an egindako EzOhiko Udal Batzarrean hartutako akordioari jarraiki.

## REUNIDOS

De una parte, Dña. Maria Catalina Nevado Larrañaga con Documento Nacional de Identidad 34091602-J, Directora General de BIDEGI GIPIZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS S.A (en adelante, BIDEGI), con domicilio en Zarautz, Asti Auzoa, 631, facultada expresamente para este acto mediante acuerdo adoptado por el Consejo de Administración en sesión celebrada el 9 de noviembre de 2012. Según acredita mediante Certificación expedida por el Secretario del Consejo de fecha 9 de noviembre de 2012.

De la otra, D. Garikoitz Aiesta Etxaniz, actuando en nombre y representación del Ayuntamiento de EZKIO-ITSASO, en virtud de acuerdo del pleno extraordinario de fecha 12 de febrero de 2014.

Alde biek elkarri onartzen diote egintza honen bidez ordezkatzeko dituzten erakundeak behartzeko gaitasun nahikoa eta lankidetzaz hitzarmen egitea adostu dute honako baldintza hauetan:

Ambas partes, reconociéndose mutuamente capacidad bastante para obligar mediante el presente acto a los organismos a los que representan, convienen en celebrar el presente convenio de colaboración con los siguientes términos:

### AURREKARIAK

### ANTECEDENTES

I. BIDEGI Foru Sozietatea, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentura atxikia, AP-8 eta AP-1 autobideetako Gipuzkoako zatiak kudeatu eta ustiatzen dituena da eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) eta BIDEGI izenpeturiko hitzarmenaren arabera, berau da baita aipaturiko bide azpiegituretako kanona administratzen duena.

I. La Sociedad Foral BIDEGI, adscrita al Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias, es la responsable de la gestión y explotación del tramo de Gipuzkoa de las Autopistas AP-8 y AP-1, y la encargada de administrar el canon de utilización de las infraestructuras viarias referenciadas, en virtud de Convenios suscritos entre la Diputación Foral de Gipuzkoa (en adelante, DFG) y BIDEGI.

II. Bestalde, 2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Araua (ekainaren 16ko GAO, 112 zk.), 2010eko uztailaren 1etik aurrera AP-1 eta AP-8 autobideetako Gipuzkoako bidezatia erabiltzeko kanonaren zenbatekoak ezartzen dituena da, eskumena ematen diona Departamentuari eta bide batez BIDEGIri, AP-8 eta AP-1 autobideetako kanonaren gainean deskontuak egiteko.

II. Por su parte, el Decreto Foral Norma 4/2010 de 15 de junio, BOG nº 112 de 16 de junio, por la que se fijan las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a partir del 1 de julio de 2010, faculta al Departamento, y a su vez a BIDEGI, para realizar descuentos en el canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1.

III. Agindutako funtzio hauek garatzeko BIDEGI behartuta dago, deskontuaren eskatzailea Gipuzkoako Udalerri batean erroldatua dagoela egiaztatzen.

III. El desarrollo de las funciones encomendadas determina la necesidad de constatar por parte de BIDEGI, que los solicitantes del descuento se encuentran empadronadas en un municipio de Gipuzkoa.

IV. Hitzarmena egiteak, BIDEGI deskontudun eskatzaileen bizilekuari dagokion informaziora, modu telematikoan, sarrera izatea dakar.

IV. La ejecución del convenio conlleva que BIDEGI pueda tener acceso de manera telemática a datos de residencia del solicitante del descuento.

V. Errolda egiaztatzeko izapidea Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte-Sociedad Foral de Servicios Informáticos (aurrerantzean, IZFE SA) enpresaren bidez kudeatuko da.

V. El trámite de comprobación del padrón se gestionará a través de la empresa Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte-Sociedad Foral de Servicios Informáticos (en adelante, IZFE S.A.).

VI. Bestalde, Hitzarmen honi atxikitako Eranskinean jasotzen den moduan, Sozietate honek, deskontu planean sartu nahi duten eta egun deskontua duten erabiltzaile ororen errolda datuetan sartzeko baimena eskatuko du,

VI. Por su lado, esta Sociedad requerirá el consentimiento de cada uno de los usuarios solicitantes así como los actuales beneficiarios del descuento, para acceder a los datos del padrón, tal y como se indica en el Anexo adjunto al presente Convenio.

VII. Bestetik, BIDEGIren lehentasunezko helburuen

VII. Además, debe recalcarse que entre los

.....//.....

**E-14-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

artean honako hauek daude: erakundeen arteko lankidetzaren harremanak areagotzea eta modernizazioa, arrazionalizazioa eta hobekuntza bultzatzea, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra lortzeko eta erabiltzaile eta herritarrei zerbitzu hobea eskaini ahal izateko, besteak beste, administrazio lanak sinplifikatuz edo tramite batzuk errazago bihurtuz. Betiere pertsonen intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezko bermeak finkatuz.

VIII. Horrenbestez, bi aldeek lankidetzaren hitzarmena sinatzea adostu dute honako klausula hauen arabera

#### KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, AP-8 eta AP-1 autobideetako kanonaren gainean aplikatzen diren deskontuen eskatzaileak Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egotearen betebeharra egiaztatzeko, BIDEGIk, izaera pertsonala duen datu hori tratatzeko baldintzak eta izan behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartzea.

*BIGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuen trataera eta konfidentzialtasuna.*

BIDEGIk aitortzen du badakiela jaso dezakeen informazio guztia eta, batez ere, izaera pertsonaleko informazioa, isilpekoa dela eta, horregatik, bere ardurapean, betekizun hauek beteko ditu:

1. Informazioa lehenengo klausulan aipaturiko xederako erabiliko du, hirugarrenei informazioa emateko ahalmenik gabe.
2. Dagozkion betebeharrak guztiak beteko ditu, betiere indarrean dagoen araudia zorrotz errespetatuz eta bereziki Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoaren arabera eta hau garatzen duen arautegian ezarritakoaren

objetivos prioritarios de BIDEGI figura la intensificación de las relaciones interinstitucionales de cooperación y el impulso de la modernización, racionalización y mejora de los recursos existentes, buscando, por un lado, la gestión eficaz de los recursos públicos y, por otro lado, la prestación de un mejor servicio a los usuarios y ciudadanos en general, simplificando los trabajos administrativos o facilitando la realización de determinados trámites, todo ello sin menoscabo de implantar las garantías que procedan para salvaguardar el derecho a la intimidad de las personas y proteger sus datos personales.

VIII. Por todo lo expuesto, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio de colaboración que se registrará por las siguientes

#### CLAUSULAS

PRIMERA.- Objeto.

El objeto de la presente es establecer las condiciones en las que BIDEGI va a tratar los datos de carácter personal sobre el requerimiento de las obligaciones de empadronamiento en algún municipio Guipuzcoano por parte de los solicitantes del descuento sobre el canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como el marco de confidencialidad que se debe mantener por parte de la empresa.

*SEGUNDA.- Confidencialidad y tratamiento de los datos de carácter personal.*

BIDEGI declara conocer que toda la información y, en especial, la información de carácter personal a la que tenga acceso es absolutamente confidencial y en su virtud, bajo su entera responsabilidad, se obliga a:

1. Destinar la información a la finalidad descrita en la cláusula primera, no pudiendo proporcionarla a terceros.
2. Cumplir con cualquier obligación que pudiera corresponderle, de conformidad y con estricto respecto al marco normativo vigente y en concreto a la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en su



---

arabera.

Reglamento de Desarrollo.

3. Ez die informazioa hirugarren pertsoneri jakinarazi edo ezagutaraziko, ezta informazioa gordetzeko ere.

3. No comunicar ni revelar la información a ningún tercero, ni siquiera para su conservación.

4. Bere eginkizunak betetzeko behar-beharrezkoa duten langileei bakarrik jakinaraziko die informazioa.

4. Comunicar la información únicamente a aquellos empleados que no puedan cumplir sus obligaciones sin conocerla.

BIDEGIren ardura izango da isilpeko betebeharra betearazteko beharrezko neurriak hartzea.

BIDEGI será responsable de hacer cumplir el deber de secreto adoptando las medidas necesarias.

5. Bai BIDEGI baita langile guztiak ere, atal honetan ezartzen diren isilpeko betebeharraren eta sekretu profesionalaren menpe izango dira.

5. Tanto BIDEGI como aquellos de sus empleados quedarán sujetos al deber de confidencialidad y secreto profesional establecido en el presente apartado.

---

*HIRUGARRENA.- Segurtasun neurriak.*

BIDEGIk, jaso dezakeen informazio guztia eta batez ere, izaera pertsonaleko informazioaren konfidentzialtasuna zaintze aldera eta betiere, datuen segurtasuna bermatu, hauek aldatu, galdu edo baimendu gabeko inori iritsi ez dakion, beharrezkoak diren neurri teknikoak nahiz antolaketa-neurriak ezartzeko konpromisoa adierazten du.

*LAUGARRENA.- Aplikagarri diren printzipioak.*

Hitzarmen hau betetzeko ondoko printzipio eta arauak bete behar dira:

- 1.- Datuak funtzio eta eskumenetara egokitzea.
- 2.- Eskaturiko datuen eta lortu nahi diren helburuen artean proportzionaltasuna egotea.
- 3.- Datuak bidaltzeko eta horietan sartzeko bideak seguruak izatea.
- 4.- Eraginkortasuna lortu eta kostuak murriztea.
- 5.- Datuak transferiezinak izatea.

Edonola ere, BIDEGIk datuetan sartzeko erabiltzailearen baimena lortu beharko du aurretik. Lortutako baimen hori dagokion espedientean jasota geratuko da. Honen inguruan, Lankidetzaren Hitzarmen honekin batera atxikirik doan Eranskinean jasotzen dena bete beharko da.

*TERCERA.- Medidas de seguridad.*

BIDEGI se compromete a adoptar las medidas de índole técnica y organizativa que resulten necesarias para preservar la confidencialidad de toda la información a la que tenga acceso y, en especial, la información de carácter personal, de forma que se garantice la seguridad de los datos y eviten su alteración, pérdida o acceso no autorizado.

*CUARTA.- Principios aplicables.*

El presente convenio se regirá por los siguientes principios y reglas:

- 1.- Adecuación de los datos a las funciones y necesidades existentes.
- 2.- Proporcionalidad entre los datos solicitados y los fines para los que se solicitan.
- 3.- Seguridad de los medios de transmisión y acceso empleados.
- 4.- Eficiencia y minimización de costes.
- 5.- Intransferibilidad de los datos.

En todo caso, BIDEGI recabará el consentimiento previo del afectado para acceder a sus datos del padrón. Se dejará constancia del consentimiento recabado en el expediente correspondiente. A este respecto se estará a lo dispuesto en el Anexo que acompaña al presente Convenio de Colaboración.

*BOSGARRENA.- Hitzarmenaren helburua aurrera eramateko datuen izaera eta metodologia.*

Hitzarmen honekin, BIDEGIren xedea, erabiltzaileen erroldaren datuen egiaztatpena egitera soilik mugatuko da.

Horrela, aurrekarietan deskribatu den bezala, deskontuaren eskatzaileak Gipuzkoako herriren batean erroldatuta daudela ziurtatuko da.

Metodologiari dagokionez, soilik, prozesu informatikoak erabiliko dira hitzarmenaren xedea betetzeko, hala nola, SFTP, FTPS edo SSC. Dena den, erabiltzen diren lagapen sistemek datu pertsonalak babesteko araudiak galdatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun bermeak bete beharko dituzte.

*SEIGARRENA.- Ez betetzeak*

Informazio hori behar ez bezala erabili edo lortzeak, edota, oro har, isilpean gordetzeko obligazioa urratzeak dakartzan erantzukizun penal, administratibo eta zibilen kaltetan gabe, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortutakoari) dagozkion funtzioez gain, aldeetako batek, hitzarmen honetan jasotako edozein baldintza ez betetzeak, besteari gaitasuna emango dio bat-batean eta zuzenbide osoz hitzarmena indargabetzeko.

Arrazoia edozein izanda ere, hitzarmena behin indargabetuta, BIDEGIk, berehala, hitzarmena gauzatzekoan iritsi zaion informazio guztia, edozein euskarritan egonda ere, itzuli beharko du.

Aipatu informazioa itzuli arte, berau behar bezala gordetzeko erantzukizuna izango du BIDEGIk.

*QUINTO.-Naturaleza de los datos y metodología para llevar a cabo el objeto del convenio.*

Los datos objeto del presente convenio se delimitará exclusivamente a la comprobación del empadronamiento de los usuarios por parte de BIDEGI.

Así, se constatará que los solicitantes del descuento descrito en los antecedentes del presente convenio se encuentran empadronadas en un municipio de Gipuzkoa

Respecto a la metodología por la que se realizara el objeto del convenio, cabe indicar que se utilizaran exclusivamente sistemas informáticos, tales como SFTP, FTPS o SSL En todo caso, dichos sistemas deberán cumplir todas las garantías de seguridad, integridad y confidencialidad exigibles por la normativa protectora de los datos de carácter personal.

*SEXTO.- Incumplimientos*

Con independencia de las responsabilidades penales, administrativas y civiles en que pudiera incurrirse por el inadecuado uso o acceso a dicha información, o cualquier otra violación de la obligación de sigilo, y sin perjuicio de las funciones que corresponden a la Agencia Española de Protección de Datos o a la Agencia Vasca de Protección de Datos (creada por la Ley 2/2004, de 25 de febrero), el incumplimiento por alguna de las partes de cualquiera de las obligaciones contenidas en el presente Convenio, facultará a la otra para resolverlo de pleno derecho e inmediatamente.

Resuelto éste por cualquier causa, BIDEGI deberá, de forma inmediata, proceder a la devolución de toda la información a la que haya tenido acceso como consecuencia de la ejecución del Convenio, con independencia del soporte en el que se encuentre.

Hasta que tenga lugar la devolución de la citada información, la empresa BIDEGI responderá de la

.....//.....

**0-E-14-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

correcta conservación de los mismos.

ZAZPIGARRENA.- Erantzukizuna.

SEPTIMA.- Responsabilidad.

BIDEGIk edota informaziora sarbidea duen langileriak, hitzarmen honetan ezartzen den edozein betebeharrak ez badute sor daitezkeen kalte-galera guztien erantzule BIDEGI izango da.

BIDEGI responderá de todos los daños y perjuicios que sean consecuencia del incumplimiento de cualquiera de las obligaciones establecidas en el presente Convenio, por sí misma o por parte del personal que tenga acceso a la información.

*ZORTZIGARRENA.- Indarrean jartzea eta indarraldia*

*OCTAVO.- Entrada en vigor y vigencia*

1.- Sinatzen den unean jarriko da indarrean hitzarmen hau eta indarraldia, BIDEGIk Gipuzkoako Lurralde Historikoan autobideak erabiltzeagatik ezarritako kanonaren gainean deskontuak aplikatzeko funtzioekin duen ardurak irauten duen arte lotetsirik gelditzen da.

1.- El presente convenio entrará en vigor en el momento en que se suscriba y queda ligada a la realización por parte de BIDEGI, de la prestación de las funciones encomendadas en relación con la aplicación de los descuentos sobre el cánon de utilización de las autopistas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Ados daudela adierazteko eta hitzartutakoa behar bezala jasotzeko, bi aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

Y en prueba de conformidad y para la debida constancia de todo lo convenido, firman las partes el presente documento en duplicado ejemplar en el lugar y fecha del encabezamiento.

***Ezkio-Itsasoko Udalaren izenean / por el Ayuntamiento de Ezkio-Itsaso***

***BIDEGIren izenean/por BIDEGI***

***Garikoitz Aiesta Etxaniz Alkatea***

***Maria Catalina Nevado Larrañaga Zuzendari Nagusia / Directora General***

*.....//.....*

***1-E-14-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA***

Ondorioz, Udal Batzarrak, aho batez, zera adosten du:

**LEHENA:**

Bidegi, S.A. eta Ezkio-Itsasoko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

**BIGARRENA:**

Hitzarmena sinatzeko ahalmena alkate jauna den Garikoitz Aiesta Etxaniz jaunari ematea.

**HIRUGARRENA:**

Erabaki hau Bidegi, S.A. foru enpresari jakinaraztea.

**BOSTGARREN PUNTUA:**

**IÑAKI NARRASPEREN GUNE ZOOLOGIKOARI ERABILERA PUBLIKOA ETA GIZARTE INTERESA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Ezkio-Itsasoko Udalerriko Arau Subsidiarioek beren 75. artikuluan adierazten dute herrian gune zoologiko bat jarri ahal izateko, Udalak gune horren erabile publikoa eta gizarte interesa onartu behar duela, legeak ezartzen dituen bestelako jarduera lizentzietaz aparte.

Izaera hau aitortu ahal izateko, Udalak hitzarmen bat sinatu du, 2014-1-20an, bi alderdiak hartu beharreko konpromezuak zehazten direlarik. Iñaki Narraspe jaunaren aldetik, gune zoologiko horretara bisitak egitea ahalbideratuko da, gehienbat udalekuetako haurrentzat eta baita herrian ezarri nahi den herri-eskolako haurrentzat ere.

Hori kontutan izanik, eta ikusirik gune horrek erabilera publiko bat izan dezakela, beti ere sinatu den hitzarmenean ezarritako baldintzapean, Udalbatza honi proposatzen zaio Ezkio-Itsasoko Udalak onartu dezala Iñaki Narraspe jaunak ezarri nahi duen gune zoologikoaren erabilera publikoa eta giza interesa duen gunea bezala, Arau Subsidiarioetako 75. artikulua xedatzen duena beteaz.

Ondorioz, Udal Batzarrak, aho batez, zera adosten du:

.....//.....

**2-E-14-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

## **LEHENA:**

Iñaki Narraspe jaunak ezarri nahi duen gune zoologikoaren erabilera publikoa eta giza interesa bezalakotzat jotzea.

## **BIGARRENA:**

Adierazpen hau Udal honetan aurrera eramaten ari den jarduera espedientean jasotzea.

## **HIRUGARRENA:**

Erabaki honen berri Iñaki Narraspe jaunari ematea.

## **GALDERA ERREGUAK.**

Martxoak 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna delarik, akordio bat onartzea proposatzen da. Honela dio akordioak:

### **MARTXOAK 8. EMAKUMEON NAZIOARTEKO EGUNA**

Aurten ere Martxoaren 8a dela eta, mugimendu feministari eta emakumeen taldeei esker, emakumeak lortu dituzten eskubide guztiak ospatzen ditugu. Gaur egun, normaltasunez ikusten ditugun eskubide hauek, ezinezkoak ziren orain dela gutxi arte: banantzeko eskubidea, ikasketa unibertsitarioak egin ahal izatea, sexualitate aske bat izatea, libre mugitzeko askatasuna, enplegu bat eduko ahal izatea, eta beste hamaika egoera, zeintzuek emakumeen egoera hobetu dituzten.

Zoritxarrez, eskubide hauen lorpenak, ez dute emakumeak duten egiturazko egoera ezezkorrarekin amaitu. Oraindik emakumeak errenta "per kapita" baxuagoak dituzte, Gipuzkoan %40 baxuagoak; EAEn gizarte esklusioan eta zaugarritasunean dauden pertsonetatik %84a emakumeak dira, aisiarako denbora gutxiago dute, osasun baldintza okerragoak dituzte, lan baldintza okerragoak, gure gizartearen sostengu diren zaintza eta erreprodukzio lan gehienak egiten dituzte. Laburbilduz, emakumeak dira lan gehien egiten dutenak, baina aldi berean errenta eta blai baxuagoa ematen jasotzen dutenak.

Gainera kontuan izan behar dugu, emakumeen egoera, ez dela hobetzen denboraren poderioz. Momentu honetan, krisiagatik, eta horni aurre egiteko, gizarte politiketan eta zerbitzu publikoetan egin diren murrizketak direla eta, emakumeen egoera okertu egin da, hauen zaugarritasuna eta beraiengan eragindako eskasia haundituz. Zaintza lanak egiten dituzten pertsonetatik %86a eta %90 bitartekoak emakumeak direla kontuan izaten badugu, menpekotasun legean egin diren murrizketak, hauengan izan duten eragina begi bistakoa da. Alde batetik familia eremuan zaintzen duten emakumeen bizi iraupenerako baldintzak urratu dira. Beste aldetik, zaintza ardurak dituztenei beraien enpleguak mantentzea ezinezkoa bihurtu zaie, eta azkenik zaintzaile profesionalen lan baldintzak urratu dira.

.....//.....

***3-E-14-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA***

Orokorrean eman den soldatamurrizketa, lan soldata baxuagoa duten enpleguen ahulezia handitu du, enplegu mota hauetan emakumeak direlarik gehiengoa. Diskriminazioak eta lan baldintza egokiak lortzeko zailtasunak, emakume asko zaintza eta rreproduzio lanetara bultzatzen ditu, sexuaren araberako lan banaketari jarraipena emanez, berriro ere beraien bizi baldintzak okertuz. Guzti honi loturik, aipamen berezia dute alargun emakumeak, eta ama guraso bakarra duten familiak, hauek baitira pobrezi eta ahulezi egoera kaskarrenak pairatzen dituztenak.

Tasa judizialen ezarpenak eta igoerak, emakume askoren segurtasun eta biiz iraupen baldintzak zalantzan jartzen dituzte; gehienbat baliabide ekonomikoak ez dituztenak, banantzeko eskubidea, ahalmen ekonomikoari lotzen baitio. Guzti honi, indarkeria sexistaren errealitate konplexua batzen badiogu, argi dago emakume askoren bizi iraupenerako baldintzak urratzen ari direla.

Guzti honekin, esan genezake, emakumeen egoeraren hobekuntza eta beraien eskubideen lorpenak ez direla bere kabuz ematen. Ez badiogu gizartearen oinarrietan dagoen sexismoari erreparatzen, emakumeen eskubideak eta oro har egoera atzerantz egin dezake. Honen adibide argia, egun Estatuko gobernuak aurrera atera nahi duen haurdunaldia eteteko askatasuna bertan behera utziko duen legea dugu. Emakume orok beraien gorputzarengan dyten erabakitzeo askatasuna eta eskubidea urratuz, are gehiago, hasuen osasuna eta bizitza arriskuan jarriko duen lege bat bultzatuz.

Politakaren esparruan, bai udal mailan zein beste alorretan, emakumeen presentzia baxuagoa da, eta presentzia hori eragin gutxiago duten arloetan izaten dute gainera. Honengatik, ezinbestekoa da bai politika eremu guztietan zein gure herriko alor guztietan, emakumeen parte hartze sozio politikoa bultzatzen dituzten ekimen publikoak gauzatzea. Berdintasuna oinarritzat ez duen gizarte batek, ez duelako garapena eta kohesio soziala bermatzen, ezta ere oinarri demokratikoak betetzen.

Guzti honengatik, sexismoa baztertzen duen gizarte baten eraikuntzan konprometitzekoe at parte hartzea dei egiten diogu herritargoari.

Azkenik, herritarrak, eta bereziki emakumeak, Martxoaren 8a ospatzeko antolatu diren ekintzetara parte hartzera gonbidatzen ditugu.

Aho batez onartzen da.

Beterik deialdiaren helburua, 19:15ak direnean, eta aztertzeo gai gehiagorik ez dagoenez, alkate jaunak Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen du. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

.....//.....

**4-E-14-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

Ezkio-Itsaso, 2014ko otsailaren 17a

O.E.  
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....

**5-E-14-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**